

Estilo-Ariketak: Raymond Queneau

XABIER OLARRA

Sarrera

KM kulturuneak 2004ko apirilean proposatu zidan Raymond Queneauren *Exercices de style* liburua itzultzea. “Queneau? *Exercices de style?*”. Pixka batean, behintzat, pentsatu beharra zegoen lanari ekin aurretik. Hamar edo hamabost urte lehenago irakurritako liburu batez oroimenean gelditzen dena ez da oso zehatza izaten. Liburua zegoen apaletik hartu eta begirada bat eman ondoren, baiezkoa eman nien KM kulturuneakoei. Alanbre kiribildua izaten duten koderno horietako bat erosi, eta udan ekin nion itzulpenari. 2004ko abendurako liburua bukatzeko hitzezko tratu moduko bat nuen KMko zuzendaritzarekin. 2004ko abendurako liburuaren erdia besterik ez neukan itzulia, eta alderik bihurriena gelditzen zen oraindik. Adiskide pare batek irakurri zuten ordu arte egindakoa. Haien erreparoa eta zuzenketak kontuan hartuta, 2005eko urtarriletik aurrera saio gogor batzuk egin, eta apirilean bukatu nuen liburuaren «lehen bertsioa» dei diezaiokeguna.

Azken zuzenketen zain gelditu zen prest liburua, 2005eko irailean argitaratzekotan.

Gorabehera franko izan zen gero. Harri-garria badirudi ere, liburuak izan behar zituen hitzaurreak eta marrazkiek sortuak. Irudien eta egile-eskubideen kontua zailtzen ari da nonbait. Onartu zituzten, ez ordea berehalakoan, Patxi Huartek egindako marrazkiak. Hitzaurrearen testua ere bidali behar izan zitzaion Gallimardekoei (euskaraz). Hari ere ez zioten erreparorik jarri. Abenduaren 15ean sinatu zen kontratua. Liburua prest zegoen aspalditxotik. Hala dio liburuaren kolofoiak: liburu hau 2005eko abenduaren 28an argitaratu zen.

Jatorrizko testua eta haren argitalpenak

Exercices de style 1947an argitaratu zen, lehenbizikoz, Gallimard etxean, eta gerora beste argitalpen bat izan du liburuak, 1963an. Argitalpen esaten dudanean, berriprimaketak alde batera uzten ditut, bai lehenbiziko argitalpenarenak, bai bigarren-goarenak. Lehenbiziko testua, 1947koa,

makina bat aldiz berrinprimatu zen, eta zer esanik ez bigarrena. Nik dudan alerik zaharrena 1947koa da, bigarren berrinprimaketako ale bat, lehenbiziko argitalpenetik hila-betera egindako batekoa. Baina kontua har bedi lehenbiziko argitalpena 573 alekoa izan zela, eta horietatik 500 zirela salmentarako eta gainerakoak artxibo, sustapen eta abarretarako.

Bi argitalpen ditugu, beraz. Bi testu. Eta bietatik zein itzuli, hori zen erabaki beharreko lehenbiziko gauza. 1963 bitarte egindako itzulpenak lehenbiziko argitalpenetik eginak daude, jakina, eta geroztik egindakoak, berriz —eskuarteetan ditudanak behintzat, italierazkoa eta gaztelaniazkoa, alegia—, 1963kotik. Niri ere horixe iruditu zitzaidan egokiena: egileak berak emandako azken forma hartzea jatorrizko testutzat.

Ariketen kopurua ez da aldatzen batetik bestera: 99 dira guztira bi kasuetan. Queneauk zenbakiei zien atxikimenduaren berri jakinda, ez da harritzekoa. Hemen, dena dela, aski da argitzea lehenbiziko argitalpenean badirela 5 ariketa bigarrenean ez daudenak, eta badirela beste 5, berriak, haien ordez.

Desagertuak:

Permutations de 2 à 5 lettres
Permutations de 9 à 12 lettres
Réactionnaire
Haï Kaï
Féminin

Berriak:

Ensemble
Définitionnel
Tanka

Translation
Lipogramme

Beste kasu batzuetan, 9 ariketatan zehazki, izenburuak aldatu dira.

1947	1963
<i>Homéoptotes</i>	<i>Homéotéleutes</i>
<i>Préterit</i>	<i>Passé simple</i>
<i>Noble</i>	<i>Ampoulé</i>
<i>Permutations de 5 à 8 lettres</i>	<i>Permutationes par groupes croissants de lettres</i>
<i>Parmutations de 1 à 4 mots</i>	<i>Permutations par groupes croissants de mots</i>
<i>Contre-vérités</i>	<i>Antonymique</i>
<i>Latin de cuisine</i>	<i>Macaronique</i>
<i>Mathématique</i>	<i>Géométrique</i>

Zergatik egin ote zituen aldaketa horiek? Baliteke besterik gabe gogokoak izatea ariketa berriak, baina jokoa gehiegi luzatzeak onik ez zekarrela iritzirik, gehiegikeriaren bat zuzendu edo damuren bati leku ematea. Hala dirudi, esate baterako, permutazioen jokoarekin urruntxoegi joan ondoren, arlo horretako bi ariketaren ordez, 1961etik aurrera OULIPOn¹ egiten ari zen ibilbidearekin lotuagoak diren beste batzuk sartu zituen: *Ensemble*, *Définitionnel*, *Translation*, *Lipogramme*. Horrez gain, *Haï Kaï* ariketaren ordez *Tanka* eman zuen. Poesia japoniar zaharragoa edo klasikoagoa delako behar bada. Eta *Réactionnaire* eta *Féminin* kentzeak, berriz, ikuspegi soziologikotik egindako eguneratzea dirudi.

1. OULIPO. *La littérature potentielle*. Gallimard. Paris, 1973.

Badira, noski, beste aldaketa batzuk, txikiagoak 1947ko testutik 1963kora, baina ez dira oso esanguratsuak. Eta, egia esan, kasuren batean ez dago jakiterik Queneauk berak «ukitu» zuen testua ala beste norbaitek. Dena dela, liburuaren osotasunaren ikuspegitik ez dago aldaketa nabarmenik.

Exercices de style

Obraren sorreran musika izan zela ernamuina diosku Queneauk: «1930eko hamar-kadan Michel Leiris eta biok Pleyel aretoan izan ginen Fugaren artea eman zuten kontzertu batean. Kartsuki jarraitu genuen saioa eta, irtetea, solasean aritu ginen oso interesgarria izango zela, halako zerbait egitea literaturaren arloan (Bachen obra ez kontrapuntuaren eta fugaren ikuspuntutik hartuz, baizik eta gai hutsal baten inguruan infinituraino ugal zitezkeen aldaketen bidez obra bat eraikitzea)».

Eta horixe egin zuen Queneauk handik hamar urtera, 1940tik aurrera, bizpahiru saiotan. Hamabi ariketa idatzi zituen lehenbizi, liburuko lehenbiziko hamabiak, eta *Dodecaèdre* deitu zion lehenbiziko sorta horri, poliedro erregular horren edertasunak iradokirik. Literatur aldizkari bateko zuzendariak, berriz, testu bat eskatu ondoren, itzuli egin zion, harpa-jotze bat iruditu baitzitzaion. Instrumentu horren soinua gogoko ez zuelako nonbait... Hurrengo hiru urteetan beste dozena bat idatzi zuen, eta, nekez bada ere, lortu zuen bederatzi argitaratzea aldizkari surrealista batean. «1945ean

beste hemezortzi idatzi nituen eta Fontaine aldizkarian argitaratu ziren abenduan. Laburbilduz, berrogeita hamarretik behera nituen idatziak hiru urtean; gainerakoak Islesur-Sagen bukatu nituen 1946ko udan. Laurogeita hemeretzigarrenean gelditu nintzen; gehiegi ere ez komeni; ideial greziarra, aizue»².

R. Queneauk bere Ariketei sorreratik beretik zien atxikimenduaren eta argitaratzeko zailtasunen aurrean erakusten zuen umorearen adierazgarri aski da aipamen hau: «*La Terre n'est pas une vallée de larmes*ek, Marcel Mariënek zuzendutako argitalpen surrealista eta belgikarrak, bederatzi argitaratu zituen, *Exercices de style* izenburuarekin; haiei erantsitako ohar batek honela zioen: "Egilearen asmoa da 'gai' bera —gertaera benetakoa, bestalde, eta *hutsala*—, ehun modu desberdinetan erabiltzea. Seguru aski, gaiari dagokionez berdinberdinak diren lehenbiziko ehun kapitulu horiek zerbait sortuko dute, ilaran irakurriz gero (*sic*), irakurlearen baitan". Ohar hori nik idatzia zen, noski»³.

Obra, gerora, *Zazie metroan* nobelarekin batera, R. Queneauren liburuetatik ezagunena bihurtu da, eta literaturzaleen artean beti izan du harrera beroa. Itzultzeko asmoa nuela edo itzultzen ari nintzela esan didan batek baino gehiagok jakinarazi didate beraiak ere bazutela horretarako asmoa, edo gogoa, edo noizbait agian gustura egingo zutela. Ez hori bakarrik, lana ia buruturik nuenean jakin dut lehen Luistxo Fernande-

2. *Exercices de style par Raymond Queneau avec 45 exercices de style parallèles dessinés, peints et sculptés par Carelman et 99 exercices de style typographiques de Massin*. Paris, Gallimard, 1963

3. *Ibidem*.

zek egin zituela saioen batzuk liburu hau itzultzen. Baina ez zen inon argitaratu. Orain batzuk jarri ditu Interneten irakurgai.

Arrakasta «izugarria» izan du obrak, eta oraindik ere badu. Artista plastikoekin eta grafista ospetsuekin batera egindako argitalpenak ere badira, eta ez bat bakarra gainera. Antzerki gisa ere oso ezaguna izan da. Eta ODA ariketak, partitura bat ere badu, Pierre Phillippe batek ariketari jarritako musika, alegia ⁴.

Zer ariketa mota?

Lehenik eta behin, esan beharra dago obra berezia dela *Exercices de style*. Oso berezia. Eguneroko bizitzako gertaera bat, hutsala, modurik xumeanean kontatua, eta ia beste 100 bariazio, gai horixe bera dutenak. Hori besterik ez da *Estilo ariketak*. Gaia, eta bariazioak. Hori besterik ez, eta hori guztia, bestalde. Istorioa behin eta berriz kontatzen zaigu, idazkuntzan erabili ohi diren modu eta baliabideetako zenbait erabiliz. Hor aurkituko du irakurleak kontakizun berbera hiru literatur genero nagusietan kontatua (epikoa, lirikoa, dramatikoa), zenbait figura erretorikoren arabera moldatua edo OULIPO taldeak testu-eraldaketarako proposatutako baliabideez emana.

«Queneauk uko egiten dio ariketak inolako alde zurrerik eskemaren arabera aurkezteari, dela gai multzoka dela konplexutasunaren arabera edo, besterik ez bada, alfabetikoki antolatzeari. Are gehiago, ez du oinarritzko testu zehatz bat —eta bakarra— erabiltzen eraldaketa estilistikoetarako;

izan ere, Notationes lehenbizi jarri bazuen ere, horrek ez du esan nahi, inola ere, hori denik eredu-zko testua»⁵

Ikusten dudanez, eta batez ere abiapuntutik obra burutzeraino izan zuen sorrera moduagatik, garbi dago Queneauk ez zuela plan zehatz bati jarraituz lan egin. Baina lehenbiziko hamabiak bukatu, eta argitaratzeko aldizkarietara bidaltzen hasi zenean, garbi zeukan buruan 100en bat aldiz kontatuko zuela istorio hura.

Zer ariketa modu dira, beraz?

Lehenbiziko hamabietan daude hiru iturburu nagusiak:

- 1.- Erretorika (eta baliabide edo figura erretorikoen erabilera). Lehen hamabietan ildo horretakoak ditugu: *litoteak, metafora, sinkisiak*.
- 2.- Erregistro-aukerak edo kontatzeko moduak: *atzekoz aurrera, ustekabea, ametsa*.
- 3.- Testu-eraldaketan eta hertsapenean oinarrituak: *logo-rallye, ostadarra*.

Lehenbizi, esan dugunez, erretorikaren baliabideak jarri zituen jokoan Queneauk *Ariketa* hauetan. Baina helburua, jakina, haien parodia egitea zen. Eta jokabide hori harantzago ere badoa. Erregistro edo kontatzeko moduen bariazioak egitean ere parodia egiten du.

PARODIA hitza letra larriz erabili beharra dago liburu honen ezaugarriak azaltzerakoan. Esperimentalismoa ere erabili izan da. Baina batez ere jolas-literatura da hau,

4. Disko batean ere grabatu zen, 1954an, Phillips etxean. Yves Robertek eta bere antzerki taldeak deklamatu zituzten testuak, eta Frères Jacquesek kantatu zituzten ariketetako batzuk.

5. *Ejercicios de Estilo*, Raymond Queneau. Versión de Antonio Fernández Ferrer. Introducción. Madril, Cátedra 1987. (40.-41. or.)

hizkuntzak eta hizketak ematen dituzten aukerekin jostaketan dihardu idazleak, eta jolaserako gogoia jartzen digu besteoi.

Bi ezaugarri nagusi ditu, nire ustez, liburu honek: batetik, parodia da, zenbait hots, hizkera, idazkera, tonu, azken finean, hizkuntz erregistroren hista, trufa, burla onbera. Eta, bestetik, kirol-literatura da, kirol hitzaren bi adieretan: antzinakoan eta gaurkoan, «jolas» baita batik bat, baina baita «norgehiagoka» ere. Idazleak berak jartzen dizkio zailtasunak bere buruari, gero haiei gaina hartzen diela erakusteko. Horren adibiderik argiena “Lipograma” da *Estilo-ariketak* liburu honetan. Ariketa horretan, frantsesez maiztasun handienekoa den letra, «e» alegia, “ezabatu” egin da, eta bere buruari ezarritako debeku hori gorabehera, berdin burutu behar du idazleak oinarriko kontakizuna. Edo hobeto esanda, beste ariketetako kontakizun berbera «e» erabili gabe egin dago hor (edo ia). Hau ez zuen Queneauk sortu, adibideek antzinako grekoraino jotzera behartzen gaituzte.

Ezarpen edo hertsapen literatura ere deitu izan zaio. Houdini haietako batekin aldeira dezakegu Queneau: alde guztietatik lokarritz eta katez lotu, eta hala ere askatu eta libre ateratzeko gauza den literaturagilea. Literatura esperimental delako esan daiteke, hitz batean laburbilduz: ohiko bideetatik aldentuz, idazkuntzaren historian zehar erabilitako baliabide erretorikoak modu berri edo berezi batean erabiltzean datza liburu honen berezitasuna.

Estilo ariketak: itzulbidean

Beraz, 99 ariketako liburua dugu, betiere, itzuli *beharrekoa*. Euskaratzean 1963koa itzuli da: hori izan baitzen egileak berak emandako azken forma. Eta hor beste ariketa mordoxka bat proposatu zuen, beste 124 (ikus eranskina). Egin zitekeen ariketa sail bat. Eta batzuk aldizkariren batean argitaratu eman ere bai. Gerora, berrikiago, ez da bakarria izan Queneauk proposatutako jokoa sartu dena. Frantsesez badira bi liburu jolasarekin jarraituz 99 ariketa jasotzen dituztenak (bakoitzak).⁶

Zergatik sortzen du halako zalaparta *Exercices de style* itzultzeak? Hain zuzen ere, itzulgarria ote den zalantzan jarri izan delako.

Hona hemen, esate baterako zer zioen Umberto Eco, *Esercizi di stile*—berak egin dako itzulpena—libururako idatzitako *aupamenean*: «Hona, bada, Raymond Queneauen estilo-ariketak, itzultzaile gisa urteetan tentatu nautenak, frantsesaren “génie” berezkoari lotuak zirelakoan, itzulezintzat hartuak».

Queneauk berak ez zuen zalantzarik. Eta historiak ere horixe frogatu du: hor daude orain arte egindako itzulpenak, egin zitekeela frogatzeko. Honako hizkuntza hauetara dago itzulia gaur egun: alemana, ingelesa, bulgaria, katalana, daniera, esloveniera, gaztelania, suomiera, galegoa, greziera, hungaria, italiara, japoniera, holandesak, norvegiera, portugesa, brasildarra, errumaniera,

6. *Les nouveaux exercices de style* (quelques variations sur un thème de Raymond Queneau). Bernard Demers. Le Pré aux Clercs. Paris 1991. *Le style mode d'emploi*. Stéphane Tufféry. Cylibris/Littératures Paris 2002.

errusiera, serbiera, suediera, txekiera eta turkiera, eta orain euskara.

Ezinezkoa da, obra hau lehendik ezagutuz gero, malkar baten ertzean sentitzen den zorabioa ez sentitzea itzultzen hasterakoan. «Motel, motel, zer hasi haiz orain?», «Baina hain duk frantsesa obra hori...», «Hori euskaratzea, ordea...», «Erregistro horiek guztiak ba al ditugu, ordea, euskaraz?». Baina jakina, «itzuriz egiten da bat itzultzaile», esan dezakegu Queneauren bidetik, eta «ezina» ekinez «egina» bihurtzen ere ongi ikasiak gara, bestalde. Kirolerako gonbidapena, beraz.

Lehenbiziko itzulpenak (nire datuen arabera) ingelesezkoa eta alemanezkoa izan ziren. Ingelesezkoa Barbara Wrightek egin zuen, 1958an, eta alemanezkoa, berriz, Ludwig Harig eta Eugen Helmlé izeneko bi itzultzailek, 1961ean. Ikusten denez, hamar urte igaro arte ez zion inork heldu itzulpenari. Umberto Ecoena 1983koa da, eta Antonio Fernández Ferrerrena, 1987koa.

Alemanezkoak 98 ariketa ditu: itzultzaileek frantsesezko *passé simple* eta *imparfait* (alemanak bi horien arteko bereizketarik ez duenez) ariketa bakarrez eman zuten. Liburuak ez du hitzaurrerik. Eta ezin dugu jakin, ez bada dedukzio simple hori egiten, haien jokabidearen zergatikoa.

Baina esku artean izan ditudan beste hiru itzulpenek, ingelesezkoak, italierazkoak eta gaztelaniazkoak, hitzaurre bana dute, eta bertan azaltzen dituzte itzultzaileek beren jokabideen arrazoiak.

Barbara Wrightek, horrelako kasuetan, hots, ariketaren bat itzulezintzat edo «itzulpenean galera handikotzat» jotzen zuenean, ordezpenera jo zuen: *substitutions* («appro-

ved by Queneau: *Paysan* – West Indian; *Italianismes* – Opera English, and it was also in a mild sort of way an act of revenge.»). Ikusten denez, alde batetik, ordezpeneak Queneauk berak onartuak ziren, eta beste alde batetik, itzultzailea mendeku txikiren bat hartzeko aukeraz baliatu zen izulpenean.

Argi dago, beraz, itzultzaile bakoitzak beste edozein itzulpenetan baino leku handiagoa egin diola bere sorkuntza-ahalmenari. Ni ere, aurrekari ilustre horiek guztiak gogoan harturik, ausartu naiz nire ordezpeneak, egokitzapeneak edo sorkuntza-, edo hobeto esan, birsorkuntza-ariketak lotsagabekeria pixka batekin egitera: gaiztakeriaren bat edo mendeku txikiren bat han edo hemen (*Louchebém* itzulezinaren ordezkariakada futurista prepositiboa, *Javanaisen* ordezkariak Zapu-erdara; *Macarroniqueren* ordezkariak *Zapo-latina*. *Poor Lay Zanglayren* kasuan, ingelesezko hitzen ahoskeraz eman dut euskal testua *Inge lays and sat* (ingeles ahoskera itxia duen norbaiti irakurtzera emanez gero, hor agertuko zaio euskal belarriari testua ulertzeko moduan). Han-hemen esatariren baten parodia edo politikariren baten gehiegikeria ergatibo zaleari ziztadaren bat eman diot, baina inolako asmo gaiztorik gabe.

Umberto Eco italierazko itzulpenaren hitzaurrean ere zehazki adierazten ditu bere jokabideak:

Horiek dira, azken batean, itzulgarrienak [hotsak gehitu, kendu edo lekualdatu egiten dituzten ariketak], betiere, jakintzat ematen bada «itzultzea» ez dela jatorrizkoaren sinonimoak beste hizkuntza batean ematea: prozedura bera italierazko testu oinarritzko batean erabiltzea da kontua. Zeren eta Queneauk ez du modu mekanikoan lan egiten, baizik eta, nolabait esateko, kasu egiten dienez belarriaren eskakizunei, itzultzaileak nahiko askata-

sun du behar diren egokitzapenak egin eta bihurrikeriaren bati leku emateko⁷.

Eta, aurreraxeago, honela adierazten du hitz gutxitan zer bidetatik ibili den bera:

Laburbilduz, liburu honetako ariketetatik bat bakarra ere ez da linguistikoa soil-soilik, eta bat bakarra ere ez da hizkuntza jakin batetik kanpo ulertzekoa. Linguistikoa soil-soilik ez denez, intertestualitateari lotua da bakoitza; hizkuntza bati lotua denez, berriz, frantsesaren *génie*ari lotua da. Bi kasuetan beharrezkoa da itzuli baino gehiago, beste hizkuntza batean eta beste testu batzuekiko, beste gizarte batetik erreferentzian eta beste denbora historiko baten testuinguruan birsortzea⁸.

Hori zen jolaslekua, eta horiek, ohituraz edo, ezarritako arauak. Esan dezadan lehenbizi ariketen hiru laurdenak beste edozein itzulpenek bezalako zailtasunak zituztela, betiere aipu ezkuturen bat, zentzu bikoitzen bat, xelebrequeriaren baten propinarekin. Beste testu batzuk, berriz, oinarritzat hitzen, hotsen, letren, silaben eta abarren manipulazioetan oinarrituak dira (aferesiak, apokopeak, sinkopak, permutazioak). Horietan euskarazko oinarritzako testu batean antzeko prozedurak erabiltzea da itzultzaileari geratzen zaion bidea. Eta horixe egin dut nik ere, aipatu ditudan lau hizkuntza horietako itzultzaileek egin zutenaren bidetik.

Egokitzapenak ere egin behar izan ditut testu askotan —testu frantsesaren esanahi eta konnotazioek parekorik ez zutenean, edo aipuetan—, bide bertsutik antzekoak bilatu edo sortu, alegia.

Birsorkuntza lan pixka bat ere egin behar izan dut, itzulpen ezinezkoen edo ia

ezinezkoen kasuetan. Hala ere, testu poetikoen parodia direnen kasuan (“Alexandrinoak”, “Sonetoa”, “Oda”, “Tanka”) testuari ahalik eta gehien lotzen saiatu naiz. Sonetoaren kasuan frantsesezkoaren neurritik hurbilago ibili naiz, Oihenartek Zalgiz poetari egindako soneto ospetsu haren ildotik alegia, luzera hori lagungarria baita oso, edukia osorik (edo ia osorik) ekarri ahal izateko. Odaren kasuan askatasun pixka bat hartu dut edukiari buruz, baina testuak partitura eta guzti izan zuenez, neurriari hertsiki atxikitzea erabaki dut, gaztelaniazko eta italierazko itzultzaileek ez bezala.

Beste batzuetan, esate baterako “Zapolatina”, “Italianismoak” “Helenismoak”, “Anglizismoak” “Inge lays and sat”, idazlearen asmoaren ildotik, agian neure partetik prozedurak gehixeago nabarmendu ditut. Ohiko testu batean agian egin beharko ez litzatekeena, baina horretara gonbidatzen duen idazle eta testu baten kasuan zilegi iruditu zaidana.


Aipatu dudanez, argot itxien kasuan (“Loucherbem” eta “Javanais”, lehenbizikoa La Villette edo Vaugirardeko harakinen mutilen mordoilo berezia, eta bigarrena, berriz, hemeretzigarren mendean sortua omen dena, eskola-ume edo gaizkileen artean), beste jokabide bat hartu behar izan dut. Lehenbizikoaren kasuan “Harrikada futurista prepositibo” izeneko testua eman dut jatorrizkoaren ordez, eta bigarren kasuan gurean erabili izan den zapo-erdara, ahuntz-erdara edo sorgin-solas deritzeten horietako batean moldatu dut testua.

7. *Esercizi di stile*. Raymond Queneau. Umberto Ecoen itzulpena. Einaudi. Turin. 1983.

8. *Ibidem*.

Horrela aurkitu dut ezein itzulpenetan ez bezalako entretenimendua, beste hizkuntza handi horietara egindako itzulpen-prozedurak kontuan harturik eta gehiegikeria handirik gabe (ustez) ahal den hobekien

testu bihurrienak moldatuz. Oraingoz besteek eta neronek erabili ditugun prozedura batzuk aipatu besterik ez dut egin. Prozedura horien zilegitasuna eta emaitzen azterketa beste baterako utziko ditut.



ERANSKINA

EXERCICES DE STYLE POSSIBLES

Nerveux	énigme
Angoissé	différents jeux d'esprit
attente	lettre de injure
jovial	lettre de protestation
calembours	annonces (petites)
cailigramme	publicité
dédicace	concierge
idées macabres	receveur
fiche de lecture	le critique littéraire
lettre de refus de l'éditeur	le critique théâtral
couture (noms de robes)	le critique cinématographique
rébus	traitement cinématographique
charade	faire-part
devinettes	critique mondain
déclaration d'amour	elegances
borgne	languaige cuit
sourd-muet	chaos
aveugle	symbols
ivrogne	fable
paranoïaque	fleurs de rhétorique
confusion mentale	éloquence de la chaire
delirium tremens	eloquence politique
règles d'un jeu	disribution de prix
jeu de l'oie	réquisitoire
réquisitoire	natation
jeu de carte	attributes
loi	

Défense	ivresse
anaphores	faim
épiphores	fatigue
moralite	maxime
peur	alternative
joie	fleurs de rhétorique
orgueil	éloquence judiciaire
triste	gourmandise
marrant	collage
hiéroglyphes	slavismes
phénoménologique	roumanismes
détective	arabismes
mots croisés	chapelier
allitérations	antithèse
collages	bysteron proteron
lieux communs	oxymoron
proverbes	ellipses
adverbes	anacoluthes
bilogique	annominations
économique	géométrique
sociologique	arithmétique
chimique	algébrique
géologique	analytique
idiot	topologique
enfantin	anadiploses
coenesthésique	éventé
abstrait	minéral
physique	paradiploses
chimique	épanalepses
front populaire	synèreses
les vertus (théologiques, etc.)	dièrèses
les sept péchés capitaux	crases
chirilologique	disjunctives
métiers divers	conjectives
caractères	adverbes
pathologique	homosexuel (lesbienne)

Estilo-Ariketak: Raymond Queneau

Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneak 2004ko apirillean proposatu zion Xabier Olarrari Raymond Quenearen *Exercices de style* liburua itzultzea. Gora-behera franko izan zen gero, liburuak izan behar zituen hitzaurreak eta marrazkiek sortuak, gehien bat. Irudien eta egile-eskubideen kontua. Artikulu honek azaltzen du nolako neke eta ataka gaiztoak gainditu behar izan zituen itzultzaileak euskaratzeko orduan. Obra berezia delako *Exercices de style*. Eguneroko bizitzako gertaera bat, hutsala, modurik xumeanean kontatua, eta ia beste 100 bariazio, gai horixe bera dutenak. Hori besterik ez da *Estilo ariketak*. Gaia, eta bariazioak. Hori besterik ez, eta hori guztia, bestalde. Zergatik sortzen du halako zalaparta *Exercices de style* itzultzeak? Hain zuzen ere, itzulgarria ote den zalan-tzan jarri izan dutelako.

Raymond Queneau : Exercices de style

En avril 2004, le centre culturel de Donostia-San Sebastián Koldo Mitxelena proposait à Xabier Olarra de traduire l'oeuvre de Raymond Queneau *Exercices de style*. Puis, de nombreux aléas sont intervenus, notamment au sujet de la préface et des dessins qui accompagneraient le livre ; la question éternelle de l'image et des droits d'auteur. L'article qui suit expose les épreuves et les inquiétudes que le traducteur a dû surmonter pour traduire ce texte en langue basque. En effet, *Exercices de style* est une oeuvre particulière. Un événement tout à fait anodin de la vie quotidienne, raconté de la manière la plus simple qui soit ; puis, près de 100 variations de ce texte, autour de ce même sujet. *Estilo ariketak* n'est rien de plus que cela. Un thème et ses variations. Mais cette apparente simplicité cache de réelles difficultés. Et si le fait de traduire *Exercices de style* crée un tel remue-ménage, c'est précisément parce que sa traductibilité est remise en question.

Ejercicios de estilo: Raymond Queneau

Este artículo relata el proceso de traducción del libro de Raymond Queneau *Exercices de style*, desde el momento mismo en que el centro cultural Koldo Mitxelena de San Sebastián realizó el encargo de traducción, en septiembre de 2004, hasta que el libro se publicó en diciembre de 2005. Un propósito no exento de dificultades, tanto extraliterarias —ciertos asuntos relacionados con las imágenes que debían acompañar a la obra y con los derechos intelectuales—, como inherentes a las especiales características de la obra original, que en opinión de diversas personas se sitúa en el límite de lo traducible. Los quehaceres y dificultades que tuvo que enfrentar el traductor al recrear esas cien variaciones, que finalmente pudieron ver la luz en euskera, son el quid de este capítulo.

Exercises in Style: Raymond Queneau

This article tells of the process of translating Raymond Queneau's book *Exercices de style*, from the time when Koldo Mitxelena Cultural Centre in San Sebastián commissioned the translation, in September 2004, to when the book was published, in December 2005. This undertaking was not without its difficulties, some of which were not of a literary nature —certain matters related to the pictures which were to illustrate the work and to the intellectual property rights— and others were inherent in the special features of the original work which, in the opinion of diverse persons, lies at the limit of what is translatable. The tasks the translator had to undertake and the difficulties he had to tackle in recreating those hundred variations which, at last, were able to see the light of day in Euskara, are the subject-matter of this chapter.

